**Ardatza**

1. Hiri-ingurunea

**Helburua**

1.4. Eskailera eta arrapaletako irisgarritasun baldintzak hobetzea.

**Lehentasuna**

— Altua.

**Irismena**




**Udalerria/Auzoa**

— Itziar.

**Egungo egoera**

— Aparkalekutik herrigunera ibilbide nagusi bat da, eskailera izan arren. Gainera, Mutxiarte-Galtzada kaleen arteko bidegurutzean dago, lehenengo maila eta galtzadaren artean itxaroteko eremurik gabe.
— Bi tarte desberdinez osatuta dago. Goitik behera, lehenengo tartea irregularra da, bost maila ditu hasieran eta zazpi bukaeran. Bigarren tartea erregularra da.

| | | |
|---|---|---|
| **Azalpena** | — Bidegurutzearekiko segurtasun baldintzak eta eskaileraren irisgarritasuna hobetzea proposatzen da. Horretarako, esku-hartze hauek proposatzen dira:<br>– Galtzadaren aurrean itxaroteko espazioa sortu, horretarako eskaikeraren hasiera atzeratuz.<br>– Eskaileraren zabalera murriztu, atzeratzeak atari baterako sarrera eragotzi ez dezan.<br>– Eskailera berreraiki edota arrapala eraikitzea aztertu. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — Jarduketa gauzatzea. | 20.000 |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — | |
| **Udaleko arduradunak** | — Zerbitzuak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Ez. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Jarduketa egin den ala ez.<br>— Aurrekontua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — "Ikusi aurrerago elementu hauei dagozkien fitxa: ""Zebra-bideak"", ""Eskailerak"" eta ""Arrapalak"". | |



*Eskailerak ez dira erabat erregularrak.*



*Bidegurutzean ez dago ikusgaitasunik eta arrisku uneak sor daitezke.*

| **1.5.a** | **Mogel-Luzaro igogailua** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.5. Igogailu berriak ezartzea eta daudenen irisgarritasun baldintzak hobetzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** |  |
| **Udalerria/Auzoa** | — Deba. |
| **Egungo egoera** | — Herrigunetik Mogel Kalearen garaierara iristeko bi igogailu daude: Lersundi-Agirretxe kaleen artean lehenengoa, Agirretxe-Mogel artean bigarrena.<br>— Hirugarren igogailu batek ikastetxeetara sarbidea emango luke, irisgarritasuna bermatuz eta ibilgailuarekiko mendekotasuna gutxituz. |
| **Azalpena** | — Mogel Kalea Itziar Bidearekin elkartzen den bidegurutzean igogailu bat jartzea proposatzen da jarduketa honetan. Igogailuarekin batera eskailera bat eraikitzea aurreikusten da.<br>— Jarduketa hau ikastetxeko sarbidearen proiektuarekin batera lantzea proposatzen da. |

| Kronograma | Jarduketa zehatzak | Kostua (€) |
|---|---|---|
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — Proiektua idaztea. | 25.000 |
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — Obra gauzatzea. | 650.000 |
| **Oharrak** | — Aurrekontua 2025eko estimazio bat da, proiektua idazten denean zehaztuko dena. | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza.<br>— Zerbitzuak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Bai. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Jarduketa gauzatu den ala ez.<br>— Aurrekontua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — "Ikusi aurrerago elementu honi dagokion fitxa: “Hiri-igogailuak”. | |



*Igogailua bidegurutzean jartzea aurreikusi da.*

| **1.6.a** | **Gudarien Plaza oinezkotzea** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.6. Espazio publikoetako irisgarritasun baldintzak hobetzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** |  |
| **Udalerria/Auzoa** | — Deba. |
| **Egungo egoera** | — Gudarien plaza Plaza Estaliarean aurrean kokatuta dago eta gaur egun txandakako aparkalekua eta taxi geralekua da.<br>— Leku pribilegiatua izanik, Udalak oinezkentzako ingurune eroso eta segurua eraikin nahi du, ingurune osoari eragingo diona. |
| **Azalpena** | — Udalak Gudarien plaza eta bere ingurua berrurbanizatuko du, aldaketa garrantzitsuak eraginez plazan bertan, merkatuaren eraikinean eta autobus-geltokian.<br>— Berrurbanizazioak plazan bertan oinezkoen ibilbideak hobetzeaz gain, galtzada gurutzatzeko aukera seguruak eskainiko ditu, ingurune osoari eraginez. |

| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
|---|---|---|
| **2026** | — Obra gauzatzea. | 450.000 |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — Proiektu hau Next Funtsekin ordainduko da. Oinezkotzeak irisgarritasun baldintzak asko hobetuko dituen arren, aurrekontu hau ez dagokio soilik IUPI-ari, beraz, ez da Jarduketa-planaren batuketan jaso. | |
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza.<br>— Zerbitzuak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Bai. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Jarduketa gauzatu den ala ez.<br>— Aurrekontua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Oinezko ibilbideak", “Zebra-bideak” eta "Espazio publikoak" fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. | |



*Gudarien Plazaren ikuspegi orokorra.*



*Paseo Estaliarekin duen harremana.*




*Oinezkotze proiektuaren irudi bat.*

| **1.6.b** | **Arakistain Plazan ibilbide leunak ezartzea** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.6. Espazio publikoetako irisgarritasun baldintzak hobetzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** |  |
| **Udalerria/Auzoa** | — Deba. |
| **Egungo egoera** | — Arakistain Plazako zoladura adokinez osatuta dago. Hauen arteko distantzia handia denez, azalera ez da nahikoa leuna eta oinezko joan-etorriak, zein gurpildun elementuenak oztopatzen ditu. |
| **Azalpena** | — Plaza inguratzea ahalbidetuko duten zerrenda leunak jarriko dira, galtzada-harriak kenduz eta haren ordez gainazal lau, gogor eta irristagaitza utziko duen material bat jarriz.<br>— Ostalarita-establezimenduetako terrazek ibilbide hauek libre uztea ezinbestekoa izango da jarduketa hau eraginkorra izateko. |

| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
|---|---|---|
| **2026** | — Obra gauzatzea. | 50.000 |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — | |
| **Udaleko arduradunak** | — Zerbitzuak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Bai. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Jarduketa gauzatu den ala ez.<br>— Aurrekontua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Oinezko ibilbideak" eta "Espazio publikoak" fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. | |



*Plazaren ikuspegi orokorra.*



*Plazaren ertzean zoladura leuna dago, iturri ondoan.*



*Plaza ertzeko eserlekuak. Jardinerek oinezkoen ibilbidea terrazengandik banatzen dute, eseleku perimetralei lekua utziz.*

## 1.7.a Hondartza irisgarriagoa.

**Ardatza**

1. Hiri-ingurunea

**Helburua**

1.7. Naturguneetako irisgarritasun baldintzak hobetzea.

**Lehentasuna**

— Altua.

**Irismena**




**Udalerria/Auzoa**

— Deba.

**Egungo egoera**

— Debako hondartzak hainbat sarbide ditu eta gehienetan, eskaileraz gain arrapalak daude.
— Uda garaian, sarbide horien jarraian, egurrezko pasabideak jarri ohi dira.
— Pasabide horietako batzuk dutxak instalatzen diren plataformetara iristen dira. Beste batzuk aldiz, hondartzan aurrera egiteko dira.
— Sarbideetako arrapalek ez dute eskubandarik, ez eta eskailera guztiek ere.
— Arrapaletan zabor edukiontziak kokatu dira, erabilera-zabalera murriztuz.

**Azalpena**

Hondartzako irisgarritasun baldintzak hobetzeko aurreikusten diren esku-hartze nagusiak honakoak dira:
— Arrapaletan eskubandak jarri, bikoitzak eta bi aldeetan.
— Falta duten eskaileretan ere eskubandak jarri, bikoitzak eta bi aldeetan.
— Eskailera eta, batez ere, arrapaletatik egurrezko pasabideetara ibilbide jarraia

| | | |
|---|---|---|
| | bermatu, oztopo gabea.<br>— Egurrezko plataformak handitzeko aukerak aztertu, hondarretan egoteko arazoak dituzten pertsonentzako itzaldun egonlekuak ahalbidetzeko aukera izan bait daitezke: haur txikiak dituztenak, gurpildun aulkian daudenak, adinekoak, mugikortasun arazoak dituztenak… | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | |
| **2026** | — Arrapaletan eta eskaileretan eskubandak jartzea. | 10.000 |
| **2027** | — Zerbitzua hobetzeko hausnarketa egitea. | 0 |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — --- | |
| **Udaleko arduradunak** | — Zerbitzuak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — --- | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Jarduketa egin den ala ez.<br>— Aurrekontua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Gipuzkoako Foru Aldundiko “Hondartzak denontzat” programa: https://www.gipuzkoa.eus/eu/-/aldundiak-hondartzak-denontzat-programa-zabaldu-du-desgaitasuna-eta-mendekotasuna-duten-pertsonentzat-egokitutako-bainua-eskaintzeko<br>— Lagundutako bainu aukerak 2025: https://www.aspacegi.org/eu/noticias/noticias_ficha.asp?IdN=1411<br>— ¿Cómo hacer una playa accesible? Generalitat Valenciana: https://www.turisme.gva.es/turisme/es/files/pdf/PGA09_playas.pdf | |



*Arrapala eta pasabidearen artean koska dago.*



*Arrapalan edukiontziak daude eta ez dago eskubandarik.*

| **1.8.a** | **Hiri-altzari egokituak edo irisgarriagoak** | |
|---|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea | |
| **Helburua** | 1.7. Hiri-ekipamenduen irisgarritasun baldintzak hobetzea. | |
| **Lehentasuna** | — Altua. | |
| **Irismena** | — Udalerri osoa. | |
| **Udalerria/Auzoa** | — Guztiak. | |
| **Egungo egoera** | Hiri-altzarien artean, herritarrek erabil ditzaketenen eta ez ditzaketenen arteko bereizketa egin behar da. Irisgarritasun eskakizunetaz gain, bankuek, iturriek eta paperontziek, eskakizun ergonomikoak bete behar dituzte; aldiz, mutiloiek edo jardinerek, ez dituzte eskakizun horiek.<br>Diagnostiko orokorra:<br>— Oro har, azken urteetan jarritako bankuek araudia betetzen dute, elementuari dagokionez behintzat. Kokapenari dagokionez, zenbait kasutan ez da eserlekuaren ondoan araututako erreserbatutako espazioa uzten. Honetaz gain, ahalegin fisikoa leuntzeko eta zainketa-lanetarako baliabide diren aldetik, espazioan kokatzeko eta antolatzeko modua ez da egokiena, kasu askotan.<br>— Paperontziei eta iturriei dagokionez, berrienek araudia bete ohi dute. Zenbait kasutan, ikusgaitasun urria duten pertsonentzat ez-detektagarriak izan daitezke.<br>— Mutiloi edo bolardoetan hauteman da arau-hauste gehien, baxuegiak direlako edo ez daudelako inguruarekiko kontrastatuta. Irisgarritasun eskakizunetaz gain, Udaleko arduradun eta herritar gehienen iritzi partekatua da oinezkoen ibilbideak oztopatzen dituzten elementuak direla. | |
| **Azalpena** | — Udalak modu jarraian berritzen ditu hiri-altzariak, beharrak hauteman ahala eta finantzaketaren arabera. Esku-hartzea IUPIan jasotzearen helburu nagusienak dira, batetik, berritze-lan horiek irisgarritasun- eta inklusio-irizpideak txertatuz egitea, eta bestetik, urtero xede horrekin partida bat izango dela bermatzea. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | |
| **2026** | — Hiri-altzariak berritu, irisgarritasun- eta inklusio-irizpideak txertatuz. | 15.000 |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — Hiri-altzariak berritu, irisgarritasun- eta inklusio-irizpideak txertatuz. | 15.000 |
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — Jarduketa jarraia. | --- |
| **Oharrak** | — --- | |
| **Udaleko arduradunak** | — Zerbitzuak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— Gizarte zerbitzuak. | |

| | |
|---|---|
| **Beste eragileak** | --- |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Bai. |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Irisgarritasun- eta inklusio-irizpideekin berritutako hiri-altzari kopurua eta aurrekontua. |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Hiri-altzariak" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. |

| **1.8.b** | **Jolas-elementu egokituak edo irisgarriagoak** | |
|---|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea | |
| **Helburua** | 1.7. Hiri-ekipamenduen irisgarritasun baldintzak hobetzea. | |
| **Lehentasuna** | — Altua. | |
| **Irismena** | — Udalerri osoa. | |
| **Udalerria/Auzoa** | — Guztiak. | |
| **Egungo egoera** | Diagnostiko orokorra:<br>— Jolasgune zaharrenetan hauteman dira gabezia handienak.<br>— Azken urteetan jarri edo berritu diren jolasguneak irisgarriagoak dira.<br>— Merkatuak eskaintzen dituen jolas-elementu egokitu edo irisgarri askotan hainbat gabezia hauteman daiteke, batez ere mugimenduari lotuta daudenetan. Esaterako, horietako asko espezifikoegiak dira (oso zaila da desgaitasun guztien berezitasunak elementu batekin asetzea), eta bestalde, ez da erraza eskaintzen dituzten aukera ludikoak erakargarriak izatea haurren gehiengoari dagokionez. | |
| **Azalpena** | — Udalak modu jarraian berritzen ditu jolas-elementuak, beharrak hauteman ahala eta finantzaketaren arabera. Esku-hartzea IUPIan jasotzearen helburu nagusienak dira, batetik, berritze-lan horiek irisgarritasun- eta inklusio-irizpideak txertatuz egitea, eta bestetik, urtero xede horrekin partida bat izango dela bermatzea. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | |
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — Jolas-elementuak berritu, irisgarritasun- eta inklusio-irizpideak txertatuz. | 15.000 |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — Jolas-elementuak berritu, irisgarritasun- eta inklusio-irizpideak txertatuz. | 15.000 |
| **2030-2033** | — Jarduketa jarraia. | --- |
| **Oharrak** | — --- | |
| **Udaleko arduradunak** | — Zerbitzuak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— Euskara eta hezkuntza.<br>— Kirola eta gazteria. | |
| **Beste eragileak** | --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Bai. | |

| | |
|---|---|
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Irisgarritasun- eta inklusio-irizpideekin berritutako jolas-elementu kopurua eta aurrekontua. |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Jolasguneak" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. |

| **1.8.c** | **Komun publiko egokituak Zumardiko kioskoan.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea |
| **Helburua** | 1.7. Hiri-ekipamenduen irisgarritasun baldintzak hobetzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** |  |
| **Udalerria/Auzoa** | — Deba. |
| **Egungo egoera** | — Zumardiko kiosko azpian komun publikoak daude. Ez dago bertara jeisteko arrapalarik, ez eta kabina egokiturik.<br>— Hondartzako aparkalekuan eta tren geltokiaren ondoan daude komun egokituak. Kioskoa bi puntu hauen artean dago, erabilera handia duen Zumardian. |
| **Azalpena** | Zumardia Debako espazio publiko zabalena izanik, bertako zerbitzuak hobetzeko komun irisgarria jartzea erabaki da. Jarduketaren atal nagusiak honakoak dira:<br>— Kioskoko komunetan kabina egokitua jartzea.<br>— Komuna irisgarria izan dadin, kanpo-arrapala bat eraikitzea.<br>Esku-hartze hau herritarrek aurrekontu parte-hartzaileetan aukeratu dute. |

| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | |
|---|---|---|
| **2026** | — Komunak eraberritzea. | 50.000 |
| **2027** | — | |
| **2028** | — Kanpo-arrapala eraikitzea. | 100.000 |
| **2029** | — | |
| **2030-2033** | — | |
| **Oharrak** | — | |
| **Udaleko arduradunak** | — Zerbitzuak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Bai. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Jarduketak gauzatu diren ala ez.<br>— Aurrekontua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Komun publikoak" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. | |



*Kioskoaren ikuspegi orokorra.*

| **1.8.d** | **Zabor-bilketa irisgarriagoa** | |
|---|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea | |
| **Helburua** | 1.7. Hiri-ekipamenduen irisgarritasun baldintzak hobetzea. | |
| **Lehentasuna** | — Altua. | |
| **Irismena** | — Udalerriko hiri-ingurunea. | |
| **Udalerria/Auzoa** | — Guztiak. | |
| **Egungo egoera** | Diagnostiko orokorra:<br>— Hondakinen edukiontziei dagokienez, gehienak albo-kargakoak dira (errefusa, organikoa, ontziak eta papera). Ahoaren altuera gehiegizkoa da, araudiak elementu horietarako aurreikusten duen 70-120 cm-tik gorakoa. Gainera, tapadun edukiontziak irekitzeko mekanismoak ez dira nahikoa irisgarriak edo erosoak: pedalak, txartelak, estalkiak...<br>— Iglu itxurako edukiontzien kasuan ere, ahoa altuegi dago.<br>— Edukiontzien kokapenari dagokionez, oinezko ibilbide egokitutik irisgarri egon behar dute eta hori ez da kasu guztietan betetzen: edukiontziak bi lerrotan jartzen direnean edo galtzada mailan, espaloitik urrun daudenean, adibidez. [Ikus adibide bat fitxaren amaieran]<br>— Irisgarritasun arazoak ez dira soilik diseinutik eratorriak: batzuk diziplina-ezaren ondorio dira (erabiltzaileek zaborra lurrean uzten dutenean, adibidez) eta beste batzuk mantentze-lan eskasaren ondorio (pedala zapaldu eta tapa nahikoa altxatzen ez denean, adibidez)." | |
| **Azalpena** | — Udalak gai hau Mankomunitatean aurkeztuko du, eskualdeko herrietan dauden ia edukiontzi guztiek ez baitute irisgarritasun araudia betetzen. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | |
| **2026** | — Mankomunitateari eskaera egitea. | --- |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — --- | |
| **Udaleko arduradunak** | — Alkatetza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— Zerbitzuak. | |
| **Beste eragileak** | — Debabarrenako Mankomunitatea. | |

| | |
|---|---|
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — --- |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Mankomunitateko edukiontziak egokitzeko plana onartzea.<br>— Ordezkatutako edukiontzi kopurua. |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Zabor-bilketa" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. |



*Edukiontzi berdeak oinezko ibilbidea oztopatzen du.*



*Zaborrontziak ez dira espaloitik erabilgarriak.*




*Zaborrontziak, kokapenari dagokionez, espaloitik erabilgarriak dira.*

| **1.9.a** | **Hobekuntza-lan puntualak oinezkoen ibilbideetan.** | |
|---|---|---|
| **Ardatza** | 1. Hiri-ingurunea | |
| **Helburua** | 1.8. Urtez-urteko jarduketa arruntetan irisgarritasun irizpideak txertatzea. | |
| **Lehentasuna** | — Altua. | |
| **Irismena** | — Udalerri osoa. | |
| **Udalerria/Auzoa** | — Guztiak. | |
| **Egungo egoera** | Diagnostiko orokorra:<br>— Herritarrengandik jaso ohi diren irisgarritasunari buruzko kexa eta gabezia askok ez dute obra handirik eskatzen: egunerokotasunean jasaten dituzten traba eta gabeziekin daude lotuta, gehienetan.<br>— Gehien aipatzen direnen artean daude: ibietako koska txikiak, garbiketa falta, zoladura labainak...<br>— Beste maila batean daude diziplina faltarekin lotutakoak: oinezkoen eremuetan aparkatutako ibilgailuak, baimendutakoa baino leku gehiago hartzen duten terrazak, salgaiak espaloietan jartzen dituzten saltokiak... | |
| **Azalpena** | — Udalak modu jarraian egiten dituen hobekuntza-lanekin jarraituko du, beharrak hauteman ahala eta finantzaketaren arabera.<br>— Hobekuntza-lan horietan irisgarritasun irizpideak jarraituko dira. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — Hobekuntza-lanak oinezkoen ibilbideetan. | 20.000 |
| **2027** | — Hobekuntza-lanak oinezkoen ibilbideetan. | 20.000 |
| **2028** | — Hobekuntza-lanak oinezkoen ibilbideetan. | 20.000 |
| **2029** | — Hobekuntza-lanak oinezkoen ibilbideetan. | 20.000 |
| **2030-2033** | — Jarduketa jarraia. | --- |
| **Oharrak** | — | |
| **Udaleko arduradunak** | — Zerbitzuak. | |
| **Beste eragileak** | --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Ez. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Irisgarritasuna hobetzeko egindako hobekuntza puntual kopurua eta aurrekontua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — --- | |

# 2. Garraioa

| **2.1.a** | **Egokitutako aparkalekuen irisgarritasuna hobetzea.** | |
|---|---|---|
| **Ardatza** | 2. Garraioa | |
| **Helburua** | 2.1. Garraiorako azpiegituren eta zerbitzuen irisgarritasun baldintzak hobetzea. | |
| **Lehentasuna** | — Altua. | |
| **Irismena** | — Udalerri osoa. | |
| **Udalerria/Auzoa** | — Guztiak. | |
| **Egungo egoera** | Diagnostiko orokorra:<br>— Espaloira sarbiderik ez. Asko dira galtzadaren eta espaloiaren arteko koska gainditzeko ibirik ez duten aparkaleku erreserbatutak. Oinezko pasabide goratuen ondoan baldin badaude honek egiten du ibiaren lana, galtzadatik igarotzeak dakarren segurtasun falta kontuan hartu behar delarik.<br>— Neurri desegokiak. Ohikoa da margotutako plazek arautatako neurriak ez izatea. Plazen neurria ez ezik, transferentzia eremuarena ere kontuan hartu behar da, garrantzi handia baitu honen erabileran. Araudi eguneratuek trasferentzia eremuari ematen diote garrantzia, ibilgailua utzi ondoren egin beharreko maniobrak errazteko duen eraginagatik.<br>— Seinaleztapen falta. Plazan INI (Irisgarritasun Nazioarteko Ikurra) margotzeaz gain, seinaleztapen bertikalak garrantzi handia du, distantziatik plaza ikusgai bilakatzeko.<br>— Plazen kokapenari dagokionez, herritarren eskaerek eragin handia izan dute, ikuspegi global baten arabera desorekak hauteman daitezkelarik. | |
| **Azalpena** | — Udalak datozen urteetako jarduketak definitu aurretik diagnostiko bat osatuko du.<br>— Egokitutako aparkalekuei dagokienez, Plan honek gaur egun dauden plazak araudira egokitzeko irizpideak emango ditu. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — Egokitutako aparkalekuei buruzko diagnostikoa. | --- |
| **2027** | — Plazen egokitzapenak osatzea eta/edo berriak ezartzea. | 5.000 |
| **2028** | — Plazen egokitzapenak osatzea eta/edo berriak ezartzea. | 5.000 |
| **2029** | — Plazen egokitzapenak osatzea eta/edo berriak ezartzea. | 5.000 |
| **2030-2033** | — Jarduketa jarraia. | --- |
| **Oharrak** | — | |
| **Udaleko arduradunak** | — Zerbitzuak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— Udaltzaingoa. | |
| **Beste eragileak** | --- | |

| | |
|---|---|
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Ez. |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Egokitutako eta ezarritako aparkaleku kopurua eta aurrekontua. |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Egokitutako aparkalekuak" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. |



*Aparkaleku egokitu hau oinezko ibilbidearen mailan dago.*



*Hiru aparkaleku egokituek transferentzia eremu bakarra partekatzen dute. Araudiak ez du antolaketa hau aipatzen.*

| **2.1.b** | **Autobus geralekuen irisgarritasun baldintzak hobetzea.** | |
|---|---|---|
| **Ardatza** | 2. Garraioa | |
| **Helburua** | 2.1. Garraiorako azpiegituren eta zerbitzuen irisgarritasun baldintzak hobetzea. | |
| **Lehentasuna** | — Altua. | |
| **Irismena** | — Udalerri osoa. | |
| **Udalerria/Auzoa** | — Deba eta Itziar. | |
| **Egungo egoera** | Ez da Debako autobus geraleku bakoitzaren diagnostikorik egin. Irisgarritasunari dagokionez, ohikonek diren gabeziak ondorengoak dira:<br>— Oinezko ibilbidearekiko lotura eza. Autobus geralekuak oinezko ibilbideekin uztartuta egon behar dute, funtzionaltasuna eta segurtasuna bermatu ahal izateko.<br>— Autobus geralekuak oinezkoentzako ibilbideak oztopatzen ditu. Badira ibilbideari dagokion tartea geralekuarekin okupatzen duten kasuak.<br>— Markesina desegokiak. Beira duten markesina asko ez dira araudia jarraituz seinaleztatzen.<br>— Eserleku falta edo desegokitasuna. Markesinetako eserleku askok ez dute beso eta bizkar euskarririk.<br>— Seinaleztapen falta. Markesinak edo geltoki-tantaiak geralekuaren izena adierazi beharko luke.<br>— Informazio egokituaren falta. Zerbitzuei buruzko informazioa ez da modu irisgarrian adierazten. | |
| **Azalpena** | Udalak datorren laurtekora begira geralekuak hobetzeko dituen asmoak honakoak dira:<br>— Debako autobus geralekuaren egokitzapena. Gudarien Plazaren oinezkotzearekin batera geralekuaren kokapena aldatuko da. Jarduketa honen aurrekontua “1.5.a Gudarien Plaza oinezkotzea”-n jaso da.<br>— Itziarko Alondegia kaleko autobus geralekuaren egokitzapena. Oinezko ibilbidea eta geralekuaren arteko lotura hobetu, zoladurak ordezkatuz eta itxarote-eremua handituz.<br>— Itziarko Mutxiarte kaleko geralekua. Esku-hartze hau “1.1.g Mutxiarte Kaleko bidegurutze” jarduketak jaso du.<br>— Itziarko Industrialdeko autobus geralekuaren egokitzapena. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — Debako autobus geralekuaren lekualdatzea.<br>— Itziarko Industrialdeko autobus geralekua. | 0<br>10.000 |
| **2027** | — Itziarko Alondegia kaleko autobus geralekua. | 10.000 |
| **2028** | — | |
| **2029** | — Mutxiarte kaleko autobus geralekua. | Zehaztu gabe |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — --- | |

| | |
|---|---|
| **Udaleko arduradunak** | — Hirigintza.<br>— Zerbitzuak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- |
| **Beste eragileak** | — --- |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Bai. |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Jarduketak gauzatu diren ala ez.<br>— Aurrekontuak. |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Autobus geralekuak" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. |




*Autobus geralekua paseo estaliaren beste aldean jarriko da.*



*Alondegia kaleko geralekua.*



*Mutxiarte kaleko geralekua.*



*Industrialdeko geralekua: ez dago bertara oinezko ibilbiderik.*

| **2.1.c** | **Auzo-taxi zerbitzua sortzea.** | |
|---|---|---|
| **Ardatza** | 2. Garraioa | |
| **Helburua** | 2.1. Garraiorako azpiegituren eta zerbitzuen irisgarritasun baldintzak hobetzea. | |
| **Lehentasuna** | — Altua. | |
| **Irismena** | — Udalerri osoa. | |
| **Udalerria/Auzoa** | — Guztiak. | |
| **Egungo egoera** | — Debak ez du auzo eta nekazal ingurunean sakabanaturik bizi diren biztanleen mugikortasuna bermatuko duen zerbitzurik. Debabarrenako sei udalerrietatik bakarrak, Elgoibarrek, du zerbitzu hau martxan.<br>— Deban, Itziarko Tokiko Entitate Txikiaz gain, 8 landa auzo daude: Egia, Elorriaga, Mardari, Itxaspe, Arriola, San Nicolás, Lastur Goia, Lastur Beia, Endoia eta Arbiskoa. Debako biztanleriaren %20 inguru bizi da auzo hauetan, herrigunetik urrun.<br>— Lurraldebus autobus zerbitzua Itziartik pasatzen den arren, maiztasuna ez da nahikoa. Gainontzeko auzoek ez dute autobus zerbitzurik. | |
| **Azalpena** | — Landa-auzoetako eta baserrietako mugikortasun beharrei erantzuteko auzo-taxi programa martxan jartzeko pausoak ematea aurreikusi da.<br>— Lanketa hau, Debak bere kabuz egin ordez, Debemen, Debabarreneko landa garapen elkartearen bitartez egitea proposatzen da. Honela, bailaran komunak diren arazoei eta beharrei zerbitzu hobea emateko aukera izango da: Mendaroko eta Eibarko ospitaletara, hezkuntza zentroetara, herrigunetara eta aisialdi lekuetara joan-etorriak ahalbidetuko lirateke horrela. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — Debemen elkartean auzo-taxi zerbitzua bailara mailan emateko proposamena aurkeztea. | 0 |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — | |
| **Udaleko arduradunak** | — Alkatetza<br>Beste sail inplikatuak:<br>— --- | |
| **Beste eragileak** | — Debemen, Debabarrenako landa garapen elkartea. | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Ez. | |

| | |
|---|---|
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Jarduketa gauzatu den ala ez. |
| **Jarduketarako irizpideak** | Ikus herri hauetako auzo-taxi programak:<br>— Elgoibar: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=EU032128198<br>— Azpeitia: https://www.azpeitia.eus/tramiteak/dirulaguntza-programak/auzo-taxi-programa-2025<br>— Markina-Xemein: https://www.markina-xemein.eus/es-ES/Noticias/2019/Auzo%20taxi%20hitzarmena.pdf |

# 3. Eraikin publikoak

| **3.1.a** | **Udaletxeko irisgarritasun baldintzak hobetzea.** |
| --- | --- |
| **Ardatza** | 3. Eraikin publikoak |
| **Helburua** | 3.1. Eraikin publikoetan irisgarritasun baldintzak hobetzeko egokitzapenak burutzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** |  |
| **Udalerria/Auzoa** | — Deba. |
| **Egungo egoera** | — Debako Udaletxea hiru solairuko bi eraikinek osatzen dute, bi sarbide independenterekin, eta igogailuak alde bati soilik ematen dio zerbitzu zuzena.<br>— Udaletxeko zenbait gela ez dira irisgarriak eta beste batzuk, batzar aretoak esaterako, bulegoetatik dute sarbidea maila berean.<br>— Bulegoen aldeko behe solairuan arreta-gunea, kontu-hartzailetza eta Udaltzaingoak erabili dituen bulegoak daude, beste egoitza batetara lekualdatu baitira, duela gutxi. |

| | | |
|---|---|---|
| **Azalpena** | — Behe-solairuaren egokitzapena egingo da, honako helburuekin:<br>_Herritarrentzat sarbide espezifikoa jartzea, langileenarengandik bereiztuta.<br>_Arreta-gunearen eta diru-zaintza zerbitzuaren espazioen berrikuntza egitea, irisgarritasun, konfidentzialtasun eta erosotasun mailak nabarmen hobetuz.<br>_Bilera gela berri bat eraikitzea, herritarrekin elkartzeko espazio irisgarria ahalbidetuz.<br>_Komun egokituak eraikitzea, langileei zein herritarrei zerbitzua emango diena.<br>— Udala proiektua idazten ari da. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — Jarduketa gauzatzea. | 150.000 |
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — | |
| **Udaleko arduradunak** | — Zerbitzuak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— Administraritzako langileak, Ogasuna. | |
| **Beste eragileak** | --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Bai. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Jarduketa gauzatu den ala ez.<br>— Aurrekontua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus erabilera publikoko eraikinei dagozkien fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. | |



*Debako Udaletxea.*

| **3.1.b** | **Pilotalekuen irisgarritasun baldintzak hobetzea** |
|---|---|
| **Ardatza** | 3. Eraikin publikoak |
| **Helburua** | 3.1. Eraikin publikoetan irisgarritasun baldintzak hobetzeko egokitzapenak burutzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** |  |
| **Udalerria/Auzoa** | — Deba, Itziar eta Lasturko pilotalekuak. |
| **Egungo egoera** | — Pilotalekuen irisgarritasuna bi ikuspuntutatik landu daiteke: kantxaren erabilera bermatzeaz gain, ikusle gisa parte-hartzea ere ahalbidetu behar da.<br>— Pilotaleku baikoitzak bere berezitasunak izan arren, dituzten arazoetako asko antzekoak dira:<br>_ Kantxa edo harmailak ez dira kanpo-espaziotik irisgarriak: bietako batera sarbidea ez dago eskuragarri.<br>_ Eskaileretan eskubandarik ez izatea: harmailetara sarbidea errazteko ez da eskubanda jarrairik jartzen.<br>_ Eskaileretako irisgarritasun sentsoriala ez dago bermatuta: ukimenezko zoladurak eta mailetako kontrastedun zerrendak falta dira.<br>_ Ez dago erreserbatutako plazarik. |

| | | |
|---|---|---|
| | – Aldagelak eta komunak baldin baditu, ez dira irisgarriak edo gabeziak dituzte. | |
| **Azalpena** | Pilotaleku bakoitzerako aurreikusi diren jarduketak honakoak dira:<br>— Zabalsoro pilotalekua:<br>– Komunak eta aldagelak eraberritzea.<br>– Harmailetan U formako heldulekuak jartzea.<br>– Eskaileretan kontrastedun zerrendak jartzea.<br>– Erreserbatutako plazak ezartzea.<br>— Aldats pilotalekua:<br>– Harmailetan U formako heldulekuak jartzea.<br>– Eskaileretan kontrastedun zerrendak jartzea.<br>— Euskal Jolas pilotalekua:<br>– Sarbidearen irisgarritasun baldintzak hobetzea.<br>– Zoladura konpontzea.<br>– Argiztapen baldintzak hobetzea.<br>– Harmailetan U formako heldulekuak jartzea.<br>– Eskaileretan kontrastedun zerrendak jartzea.<br>– Erreserbatutako plazak ezartzea.<br>— Presaola pilotalekua:<br>– Harmailetako goiko aldera arrapala eraikitzea, %6-ko gehienezko malda duena.<br>– Harmailetan U formako heldulekuak jartzea.<br>– Eskaileretan kontrastedun zerrendak jartzea.<br>– Erreserbatutako plazak ezartzea. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — Zabalsoro pilotalekua, Itziar. | 80.000 |
| **2027** | — Aldats pilotalekua, Deba. | 10.000 |
| **2028** | — Euskal jolas pilotalekua, Deba. | 10.000 |
| **2029** | — Presaola pilotalekua, Lastur. | 100.000 |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — --- | |
| **Udaleko arduradunak** | — Zerbitzuak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— Kirola eta gazteria.<br>— Kultura. | |
| **Beste eragileak** | --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Bai. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Jarduketak gauzatu diren ala ez.<br>— Aurrekontua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus "Eskailerak" eta "Arrapalak" fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. | |




*Zabalsoro pilotalekua.*



*Aldats pilotalekua.*



*Euskal Jolas pilotalekua.*




*Presaola pilotalekua.*

| **3.1.c** | **Apaizetxearen egokitzapena.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 3. Eraikin publikoak |
| **Helburua** | 3.1. Eraikin publikoetan irisgarritasun baldintzak hobetzeko egokitzapenak burutzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** |  |
| **Udalerria/Auzoa** | — Itziar. |
| **Egungo egoera** | — Itziarko Auzo Udalaren egoitza Burugorri eraikina den arren, hau irisgarri bilakatzea ez da erraza: sarbidea zaila izateaz gain, ez du igogailurik eta hau jartzeak eraikinaren azalera asko murriztuko luke.<br>— Auzo Udalak Apaizetxea alokatu du epe luzerako eta udalbatzak bertan egiten dira, besteak beste. |
| **Azalpena** | — Apaizetxeko behe-solairuaren irisgarritasun baldintzak hobetzeko egokitzapenak egitea proposatzen da. Besteak beste, leiho bat ate bilakatuz, sarbide irisgarria ahalbidetuko da. |

| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
|---|---|---|
| **2026** | — --- | --- |
| **2027** | — Jarduketa gauzatzea. | Zehaztu gabe |

| | | |
|---|---|---|
| **2028** | — --- | --- |
| **2029** | — --- | --- |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — --- | |
| **Udaleko arduradunak** | — Zerbitzuak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— Alkatetza. | |
| **Beste eragileak** | --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Bai. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Jarduketa gauzatu den ala ez.<br>— Aurrekontua. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Ikus erabilera publikoko eraikinei dagozkien fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. | |



*Apaiz Etxea.*

| **3.1.d** | **Luzaro-Agirretxe eta Mendata ikastetxeen arteko igogailua.** |
|---|---|
| **Ardatza** | 3. Eraikin publikoak |
| **Helburua** | 3.1. Eraikin publikoetan irisgarritasun baldintzak hobetzeko egokitzapenak burutzea. |
| **Lehentasuna** | — Altua. |
| **Irismena** |  |
| **Udalerria/Auzoa** | — Deba. |
| **Egungo egoera** | — Bi ikastetxe hauek Itziar Bidean daude, herrigunearen kota garaienean. Bertara iristeko oinezkoentzako ibilbideak oso maldatsuak dira,baina Mogel Kaleraino igogailu bitartez iristeko aukera dago.<br>— Ekintza plan honetan Mogel eta Luzaro-Agirretxe arteko igogailua jartzea proposatu du. |

| | | |
|---|---|---|
| **Azalpena** | — Jarduketa honek bi ikastetxeen arteko desnibela erakinetan esku-hartuz gainditzea proposatzen du, ez baitago inguruan igogailua behar duen hiri-bilberik.<br>— Eraikinetan esku-hartzea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari dagokionez, gai hau beraiekin lantzea proposatzen da.<br>— Eskaera egin aurretik Debako hezkuntza-komunitatearekin jarduketari buruzko hausnarketa egitea proposatzen da. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — Hezkuntza Komunitatearekin batera aukera ezberdinak aztertu.<br>— Eusko Jaurlaritzari proposamena egin. | 0<br>0 |
| **2027** | — --- | --- |
| **2028** | — | |
| **2029** | — --- | |
| **2030-2033** | — --- | --- |
| **Oharrak** | — --- | |
| **Udaleko arduradunak** | — Euskara eta hezkuntza.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— Alkatetza. | |
| **Beste eragileak** | --- | |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — -Ez. | |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Jarduketa gauzatu den ala ez. | |
| **Jarduketarako irizpideak** | — --- | |



*Igogailua eraikinetan jar daiteke, hauen irisgarritasun baldintzak bermatzeko.*



*Eremua oso maldatsua da.*

| 3.1.a | Eraikin publikoetan irisgarritasun baldintzak hobetzeko egokitzapen kanpainak burutzea. | |
|---|---|---|
| **Ardatza** | 3. Eraikin publikoak | |
| **Helburua** | 3.1. Eraikin publikoetan irisgarritasun baldintzak hobetzeko egokitzapenak burutzea. | |
| **Lehentasuna** | — Altua. | |
| **Irismena** | — Udalerri osoa. | |
| **Udalerria/Auzoa** | — Guztiak. | |
| **Egungo egoera** | Eraikin publiko gehienetan aurki daitezkeen gabeziak, irisgarritasuna nabarmen baldintzatzen dutenak:<br>— Sarbide eta harrera-guneak: espazio publikotik sarbidera iristeko oztopoak, ate desegokiak, zoru labainkorra, itxarongune falta, arreta-gune ez irisgarria.<br>— Seinaleztapena: errotulazio ez irisgarria eta heterogeneoa, irisgarritasunari lotutako informazio falta.<br>— Eraikinetako barruko ateak: estuak, astunak, irekitzeko mekanismo desegokiak.<br>— Eskailerak: segurtasunaren eta irisgarritasunaren arau-hausteak.<br>— Igogailua: falta edo desegokia.<br>— Komun egokituak: falta edo desegokiak dira. | |
| **Azalpena** | — Urtean urteko "egokitzapen-kanpainak" egitea aurreikusten da, diagnostikatutako arazo larrienei konponbidea emanez, behar gehien duten eraikinetan.<br>— Jarduketa honetatik kanpo geratu dira obra handiak eskatuko lituzketenak: igogailuak eta komunak, esaterako. | |
| **Kronograma** | **Jarduketa zehatzak** | **Kostua (€)** |
| **2026** | — Sarbideak eta harrera-guneak egokitu. "Udal irisgarria" eremuko "7.1.a Arreta irisgarriagoa eman herritarrei" jarduketarekin osatzen da. | 50.000 |
| **2027** | — Sarbideen ondoan errotulazio irisgarria eta homogeneoa jarri. Ikus "6.5.a Udalerrirako seinaleztapen irisgarria, ulergarria eta homogeneoa diseinatu, eta eraikin publikoetako sarbideetan errotulazioa jarri." jarduketa Udal Irisgarria atalean. | --- |
| **2028** | — Eraikinen barruko ateak aldatu (adibidez, estuak edo astunak direlako). | 25.000 |
| **2029** | — Eskailerak egokitu, irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko. | 25.000 |
| **2030-2033** | — | |
| **Oharrak** | — | |

| | |
|---|---|
| **Udaleko arduradunak** | — Zerbitzuak.<br>Beste sail inplikatuak:<br>— “Udal irisgarria" ren arduraduna.<br>— Sail guztiak. |
| **Beste eragileak** | --- |
| **Esleipenak eta kanpo-baliabideak** | — Bai. |
| **Ebaluazio eta jarraipen adierazleak** | — Gauzatutako jarduketa kopurua.<br>— Aurrekontua. |
| **Jarduketarako irizpideak** | — Eraikinetako udal-arduradunekin elkarlanean. Lehenesteko irizpideak: beste arrazoi batzuengatik lanak egingo diren eraikinak, irisgarritasunari edo segurtasunari dagokionez erabiltzaile zaurgarri gehien dituzten eraikinak, egoera okerrenean dauden eraikinak, gehien erabiltzen diren eraikinak.<br>— Ikus erabilera publikoko eraikinei dagozkien fitxak, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean. |